# BARREN

1999ko urriaren 8a
VII. urtea 293. zkia
ELGOIBARKO ASTEKARIA

**ZENBAT BURU**
Idoia Arozena

**ERREPORTAJEA**
Kalea baino,
baserria nahiago

**GEHIGARRIA**
Txikibarren

**KIROL ELKARRIZKETA**
# an renas
e txapelduna

**KULTUR ELKARRIZKETA**
`Kubanakhan'
Karlos Balseiroren
disko berria kalean





# Kaletik baserrira l11Titasun bila

[)Vranizazu ESTETIKA



Harrigarria da

Retinol-ek gaztetzeko daukan ahalmena.

**4 SAIOREKIN BAKARRIK:**

Zimur handiak eta espresiozkoak disimulatzen ditu. %73

Zimur txikiak kentzen ditu. %82

Azalaren tonua hobetzen du. %76

Konfort-a eta hidratazioa hobetzen du. %94

Azaleko testura hobetzen du. %100

KONTSULTA EZAZU TELEFONO ZENBAKI HONETAN: **943 74 27 25**

ad'i




**2000. urteak**

**ez zaitzala**

**BARRENeko GiDAn**

**agertu gobe harrapatu,**



IDOIA AROZENA

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta tylandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

# Gizakiak baino ez gara

44 undua triste dago". Horixe esan zidan lagun batek berriki burutu den Donostiako Nazioarteko Zinemaldian pelikula mordo bat ikusi ondoren. Berdin zion munduko zein muturretatik zetozen filmeak: gaur egun, gerra krudelak eta bere ondorio are krudelagoak edonon aurki daitezke, edo langabezia, bikote-harreman mingotzak, drogen inguruko hipokresia, noraezean, bizitzari babesa eta zentzua emango dion txoko baten bila dabilen gizakia edo progresoa eta diruaren izenean ohiturak eta bizimodua bera galdu duen gizartea.

Donostian ikusi den zinemak ez du HoIlywood-eko haundikeria eta xinplekeriarekin zerikusirik. Zoritxarrez, filma horietako asko eta asko ez dira gure herri eta zinearetoetara iritsiko, Ongarri zine-klubari eta antzeko zale eskuzabalei esker ez baldin bada behintzat. Eta, batzuetan, horien ahaleginek ere ez dute askotarako balio izaten, fi1matako gehienek -estatubatuarrek izan ezik- ez dutelako banatzailerik. Are gehiago, askok ez dute kopia gehiagorik egiteko dirurik ere. Zoritxarrez diot, tristeak eta mingotzak baldin badira ere, batzuetan nahigabea sortzen duten arren, guztiagatik, prezisamente, senti eta pentsa arazi egiten digutelako eta, aldi berean, mundu zabala ezagutzeko leiho paregabea direlako. Harrigarraia suertatzen da konprobatzea gutxienekoa istorioaren leku geografikoa dela: pelikulei esker Pekingo auzune xehe bateko baiñu publikoetatik Irango basamortu antzura salto egin daiteke, New York-eko kale gorrietatik Estatu frantseseko landa girora, Berlingo negu hotzetik Oportoko langile etxeetara. Punta batetik bestera ibili eta gero, ondorioa baina, bat da: geografikoki punta banatakoak izan arren, zein igoalak diren gizaki horien guztien arazoak, umorea, eguneroko joan-etorria, eztabaida gaiak: Nahiz eta beste hizkuntza batean mintzatu, nahiz eta bestelako sinesmenik izan, nahiz eta kultura, arropa eta ohitura bitxienez jantzirik azaldu, giza talde horien pozak eta minak egunero guk geuk bizi ditugunak dira; New Yorken galdurik dabilen gaztea; basamortuan bizitza sortu nahi duen emakumea; Pekinen ohitura zaharrak gorde nahi dituen agurea... Gu geu gara.

**"linemaldiak berak zerbaitetarako lagundu baldin badu, horrexetarako izan da hain zuzen, punta banatakoak izan arren, zein igoalak garen erakusteko".**

Zilarrezko Maskorra irabazi zuen Zhang Yang zuzendari txinatarrak zera esan zuen saria jasotzerakoan: "Xhizhao" bere pelikula Europan ulertuko zen ala ez, horrek kezkatzen zuela. Eta zinemaldiak berak zerbaitetarako lagundu baldin badu, horrexetarako izan da hain zuzen, punta banatakoak izan arren, zein igoalak garen erakusteko. Azken finean, hangoak edo hemengoak izan, gizakiak baino ez gara.

## Barrak, Birrak eta Barreak



# BaRREN

Natarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
21 **943 74 41 12**
Publizitatea:
Ir 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila: barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.ihardun.comlbarren

ARGITARATZAILEA Elgoibarko Izarra
LAGUNTIAILEA Elgoibarko Udala
KAZETARIAK Irati Agirreazaldegi, Asier Orbea
PUBLIZITATEA Maitane Cid
MAKETATZAILEA Bea Ansola
ADMINISTRAZIOA Amaia Martin
GER ENTZIA Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK Ainhoa Andonegi, Aitor Argarate, ldoia Arozena, AitzolArriola, Martin Dominguez, Jon Eugi, Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorriti, lon Gurrutxaga, KOKOE, Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea, lon Lotola, Ongarri Zine Kluba, fritgo Otaño, Jon Pell Uriguen, lban Urizar, Amaia Urzelai, Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.
BANAKETA ABDURADUNA Imanol Larrañaga
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.
TBBADA 4.000 ale
LEGE GORDAILDA SS-1.038/92
ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*



*gizarte-ekintza*
*obra social*

44 DANOBAT

410' GOITI
GRUPO DANOBAT


# E S K U T I T Z A K

## Adiorik ez, Ara

Une latz honetan gure elkartasuna eta animoa eman nahi diegu bere familiari eta lagunei. Arantza ezagutu genuenok ondo dakigu bere gizatasunaz eta euskalduntasunaz. Arantza, ezagutu ondoren zerbait lagatzen duten horietakoa zen eta, joaterakoan hutsunea sentiarazten dutenetakoa. Berak lagatako hutsuneak bere ohiartzuna gogora ekar diezagula.

Adiorik ez!

AEK **euskaltegia eta Korrika**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK atablan adierazitakoen eranlzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek lartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zenbakia.**

1999-X-8

## GALDERAK



• Basarte kaleko bizilagun batek ondorengo galdera luzatu digu: Udalak Basarte auzoan, Sallobente ibaiaren galnetVk pasatzen dan zubixan alde banatan daozen bi txaboleldn zer egiteko asmoa du? dauden moduan utzi, bota edo lekuž aldatuko dituzten jakitea gustatuko litzaidake.

Udaleko Hirigintza sailetik honako erantzun hau jaso dugu: "Sallobente ibaia bideratzeko lanak bukatzean tatertuko dugu zer egin dezakegun txabola horiekin".

## TXALOAK

• San Migel auzoko nagusiek Belaustegi baserrikoak txalotu nahi dituzte, "Pasa berri diazen San Migel auzoko jaixetan merienda zoragarrixa preparau ziuen eta baita giro edan̄a sortu ere. Mila esker bihotzez".

## KEXAK

• Emakume bat Madalako parke erditik pasatzen diren motorzaleen jarreraz kexatzera etorri zaigu. "Motordunek San Frantzisko kalea hasten den etxebizitza azpian aparkatzeko ohitura dute. Askok, errepidetik joan beharrean, parkearen erditik joateko ohitura arriskutsua dute. Hori gutxi balitz, batzuetan ziztu bizian ibiltzen dira. Madalako parkea haur askoren jolasgunea da eta ezer egin ezean, ezbeharren bat gertatuko da".

• Aun̄eko kexarekin erlazioa izan dezakeen ondorengo kexa hau helarazi digu gazte batek: "Motorrak dauzkagunok arazo franko izaten ditugu non aparkatu asmatzerakoan. Batetik, Udaltzainek leku askotan aparkatzea galerazten digute. Bestetik, autoentzako aparkalekuak erabiltzen baditugu, gidariek ez gaituzte errespetatzen. Motorrak aparkatzeko leku edo gune bereziak jartzea izan daiteke irtenbide bat.

• Herritar bat erraldoi eta buruhandien egoeraz kexatzera etorri zaigu, "Erraldoi eta buruhandien irudiek nahiko egoera kaskarra dute. Hori dela eta, irudi hauek zaintzeaz arduratzen direnei iradokizun edo sugerentzia bat egin nahi nieke. Irudiak batetik bestera mugitzean kalte handia jasaten dute. Kalte hori gutxitzeko eta irudiak babesteko, zerbaitekin estali beharko lituzketela iruditzen zait. Hain zuzen, merkatuan badaude 'espuma' edo plastiko bereziak zeregin horretarako oso egokiak izan daitezkeenak, Bestalde, mantenimentuko talde bat egon beharko tzatekela uste dut. Hauek, erraldoiak eta buruhandiak kalera irten aurretik kalterik duten begiratu, eta hala izatekotan konponketak egiteaz arduratuko lirateke,"



*ESKERTZA*

*1999ko irailaren 28an, 85 urte zituela hil zen*

*FRANCISCO OTEIZA SALABERRIAren sendiak,*

*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*

*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*





*URTEURRENA*

*1998ko urriaren 14an, 86 urte zituela hil zen*

*VALERIO ESNAOLA ARAKISTAINen oroimenez*

*URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian*

*datorren larunbatean, hilak 16, arratsaldeko 19:00etan.*

*joaten zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*



# Kaletik baserrira las aitasun bila

*Baserritarren bizimodu tradizionala oltzear dagoela sarritan entzuten dugun kontua da. Gaur egun oso gutxi dira baserriko lanari esker bakarrik bizitzeko gai direnak. Gainera, baserrietan jaiotako sente-alaba askok nahiago dute kalera jaistea. Hala ere, azken urteotan gaztiz kontrako fenomenoa ari da gertatzen.*

*Pertsona askok, kaleko bizimodua alde batera utzi, eta nahiago dute herriko kanpoko aldeetan etxeak eraiki. Abereak eta baratza jartzen dituzte batzuek, baina gutxiengoa dira. Joera honen arrazoiak bilatu nahiak bultzatuta, baserritar moderno hauengana jo dugu. Ikus dezagun zer dioten.*

## Altzate-Etxetxo

**Tesus** Mugerza eta Elena Ronse senar-emaztea San Migelgo Altzate-Etxetxo baserrian bizi dira beraien bi alabekin. Baratza, ikuilua, 20 bat ardi, behor bat eta txakurra dituzte. Biek kalean egiten dute lan, eta ez dira baserritik ateratzen dutenaz bakarrik bizi, "hori zailagoa litzateke, hala ere, etxerako beharrezko barazkixak ateratzen ditxugu. Baserri batek izan ditzakeen gauza gehixenak ditxugu. Baitxa kaleko edozeinek izan ditzakeen erosotasunak ere. Ez gaude isolatuta, kaleko bizitza sozialean, politikoan eta laboralean parte hartzen baitugu". Jesusek, gurasoak San Migel bailarakoak ditu, baina 30 urte luzez kalean bizi ostean, baserri zahar bat erosteko aukera sortu zitzaion duela 7 urte inguru. Baserria goitik behera berritu zuten auzotarren eta emaztearen Iagunen laguntzaz. "Han eta hemen batzen genitxuan gauzekin osatu gendun etxia, ixa dana birziklautako materialez inda dao. Gainera, hainbat ofizio ikasi bihar izan ditxut", aipatu digu Jesusek. "Oso aberasgarrixa da norberan eskuekin indako etxe batian bizitzia, eta eraikitze lanetan ere momentu edarrak pasau genitxun". Jesusek aspalditik zuen buruan baserrira bizitzera joatea, "baserrixan bizitzia, ametsa baino, barru-barruan sartuta nakan bihar bat zan. Baserriko bizimoduak naturarekin kontaktuan bizitzeko aukera ematen digu, izadiko zati bat gehiago garela gogorarazten digu. Kalean hori galtzeko arriskua dago. Kaieko bizimoduarekin alderatuz, baserrian, naturak markatzen duen erritmoan lan egin eta bizi gara. Urtaroek, euriak, egunak eta gauak... duten garrantziaz jabetzeko balio du". Zerutik hurbilago bizi denetik, "hor behean", kalean gertatzen diren gauzak beste ikuspuntu batetik ikusten dituela esan digu. "Herrira begiratu eta nola haziz doan ikustean, bizitzeko, kontsumitzeko eta kontaminatzeko ditugun ohiturekin dena izorratzen ari garela konturatzen naiz. Kutsadura, pinua nonnahi, mendiak zulatzen dituzten harrobiak, ibai zikinak... ikusten ditut hemen goitik. Hirigintza eta ingurugiro politikek dirua bakarrik bilatzen dute, eta ezer egiteko beranduegi denean konturatuko gara egiten ari garen kalteaz. Bitartean, guztiok zaudete gonbidatuta ikiiskizun penagarri hau hemen goitik ikustera".



San Migel ballaran dago 'Altzate-Etxetxo' baserria. Hondakinetatik eraikitako baserri paregabea da.



## Bertoso Berri



Amaia Petiagari-.karto eta Jon Agirrezabala senar-emazteak Bertoso Berri baserrian bizi dira, herritik kilometro eta erdira. Etxebizitza bitan dago hanatuta, Amaiaren ahizpa eta honen senarra bizi dira aIdamenean. "Lehen, asteburuetan joaten ginan baserrira, baina ahizpak ezkontzia pentsau zabanian, baserrixa berritxu eta bertara bizitzera jutia pentsau zaban, senarra ere baserrikua da-eta. Geruao ebda banatzia nahi gendun galdetu ziuen eta halaxe in gendun. Bi aldiz pentsau gabe hartu gendun erabakixa. Duela 3 urte eta erditxik bizi gera hemen, eta oso gustora gaoz. Kalian horrenbeste urte bizi ostian, aldaketia onerako izan da. Neretzako kalian bizitzia modukua da, baina bentaja askokin. Hemengo lasaitasuna eta askatasuna ezin dia pagau. Auzokidiekin ez dao burrukarik edo arazorik, ez dao inor molestatzeko bildurrikan-eta, Udan elxeko atarixan bazkaltzen eta afaltzen dou, zoragarrixa izaten da, musikia jarri eta barbakoak ere itxen ditxugu". Hala ere, kalian bizitz,eak, batzuetan, erosotasun gehiago dituela aipatu digu Amaiak. "Dana eskura dakazu eta zeozer ahaztu ezkero, ez dakazu kotxia hartu eta mobitxu hiharrikan. Gabian entzuten diazen animalixen zaratetara ere ez naiz oindiokan ohitxu, holako gauzetarako beldurtixa naiz". Lehen begiratuan zaila da baserri bat dela asmatzea, gehiago dirudi txaleta. Amaiak aipatu digun bezala, duela 4 urte baserria goitik behera eraberritu zuten. Hala ere, inguruetara begiratuz gero, baserria dela ikusiko dugu. Okelatarako zenbait behiz gain, untxiak, oiloak eta txakurra ere badituzte. Amaiak azaldu digunez, "lehen baratzia ere euki gendun, nere osaba bakarrik ibiltzen zan, eta oin lagata dao. Bestiok kalian itxen dou lan eta ez dakagunez asti gehixegirik, oin ez da inor ibiltzen".



*Bi bikote bizi dira `Bertso Berri' baserrian. San Migel bailaran dago hau ere.*

## Txillarre



Rosario Zubiaurre Txillarre baserrian jaiotakoa da. Azken 30 urteak kalean egin ondoren, berriz ere, Txillarrera bizitzera joatea erabaki zuen duela 3 urte. Hala ere, gaztetan ezagutu zuen baserriko bizimodua eta berak gaur egun daramana guztiz ezherdinak dira. Aldaketa nabarmenena, baserrian bizitzeko bertan lan egin beharrik ez daukala izan da. Momentu honetan ez du animaliarik ez eta baratzarik ere, berak esan digun moduan, "gehixenez lora batzuri kaso itxen diuet". Baserria guztiz berritu zuten, eta bizitzera joan baino Iehenago asteburuetan bakarrik joaten ziren bertara. Nahiz eta, Rosariok aitortu digun moduan, "ixa egunero igotzen nitzan ni baserrira. Azkenian semiek animauta kaleko etxia laga eta ona etortzia erabaki gendun, eta ez naiz hartutako erabakixakin damutzen. Hasieran euki genitxun duda batzuk, gaztetan haserrixan izan naban bizimoduakin akordatzen nitzan-eta, astuakin gora eta behera eta eskolara juteko astirik gabe. Nere generaziokuek buruan sartuta dakaun gauza bat da. Baina hemen bizitzia zoragarrixa da, nahi dotenian kotxia hartu eta edozein lekutara jun neike. Zeozeren faltia izan ezkero, bi ahizpa eta nere ama inguruko baserrietan bizi dia. Lehen baserri bat eukitzia lotura handixa zan, baina oin dana dia bentajak. Goizian jaiki eta nahi dozuna in leikezu, nahi badozu pasiara bat eman, perretxikuak batu edo beste edozer. Kalera irtetzeko edo Iorei ura botatzeko, adibidez, ez dakat preparau biharrikan. Izugarrizko askatasuna dakau nahi doguna itxeko bestiek zer pentsauko daben preokupau gabe".



*Rosario Zubiaurre eta bere fandlia baserrirajoan ziren bizitze1;a 30 uriez kalean bizi ostetin.' V:i.*

# Ba al daukazu estresa koltrolatzeko metodorld



**ANA GUTIERREZ**
**25 urte, umezaina**

Asteburuetan juerga egitea da erremediorik onena. Batzuetan gauza gehiegi hatera egin nahi izaten ditut, eta ezin dudanean estresatuta egoten naiz.



**JESUS DOMINGUEZ**
**41 urte, torneroa**

Bizitza trankil hartzea. Oso azeleratuta nabilenean estresatuta sentitzen naiz. Erlajatzeko irakurri eta musika entzuten dut. Atseden hartzen dut horrela.



**CAMELIA TERCERO**
**47 urte, etxekoandrea**

Ez daukat inolako metodorik. Gaur egun ia denok urduri bizi gara eta horri aurre egiteko gauzak lasaiago hartu beharko genituzke. Baina azkar goazenez ,ezinezkoa da.



**MARI CARMEN ARIZAGA**
**55 urte, etxekoandrea**

Oso gatxa da metodo bat eukitzia. Ni ez naiz estresauta sentitzen. Etxian, gizona jubilauta dao eta bilobekin jolasian lasai ibiltzen gera, hori izan leike erremedixua.



**JULIO MAULEON**
**70 urte, jubilatua**

Estresik ez daukadanez, metodorik ere ez. Gainera, beti nire kontura egin izan dut lan, eta gauzak lasai hartzen ditut, inolako estnasunik gabe.



**PEDRO MATA**
**50 urte, aparejadorea**

Ez daukat metodorik. Normalean ez dut estresik izaten, baina noizbait sentitu izan dut estresa, oporren ondoren batez ere. Holakoetan kirola egiteak erlajatu egiten nau.

karlizano
San Frandsko, 14 - TeL 943 74 05 49

Arrieta
San

1# Anchijstegul s.a.
ZERAM1KAK
Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arritlaga, 6-8 behea
83 P. K. 20870 ELGOIBAR
Tel: 943 74 33 44 - 74 06 92
Faxa: 943 74 37 11
Biltegia:
Olaso industrialdea
Olasope, 5
20870 ELGOIBAR
Tel: 943 74 20 38 - 74 23 71

Miopia Excimer laser Lasik
Jose Ignacio Recalde Yurrita
Mediku Oftalmologoa
Laserrarekin interbentzioak BILBON
Urtzaile **kalea** 2, 1• EiBAR Te1.943 20 18 44

# ISPILUARI BEGIRA






**IArt-BI enmarkazio altzari dendakoa**

**-Zure bizitzako zein une enmarkatuko zenuke?**
- Une asko enmarkatuko nituzke. Nire semearen jaiotza akaso.

**-Egunkari bateko zein berri gustatuko litzaizuke koadro batean jartzea? -** Gerrak amaitu direla eta baita lurrikarak eta antzerako ezbeharrak ere.

**-Artista izatekotan zer izan nahi zenuke?**
- Dudarik gabe margoIaria.

**-Noren argazkia enmarkatuko zenuke** urrez?
Nire semearena edo Iagun on batena.

**-Elgoibarko zein txokoren grabatua egingo** zenuke?
- San Pedro auzokoa, Ieku berdeak atsegin ditut.

**-Horrenbeste ispilurekin lan eginda, ez zara superstiziosoa izango, ezta?**
Ez, eta apurtu izan ditut bakarren batzuk.

**-Zer esaten dizu ispiluak goizero?** Egun horretan egin behar ditudan gauzen errepasoa egiten dit.

**-Ispiluari begiratu gabe irten al zaitezke etxetik?**
Bai, arazorik gabe.

**rnundu miragarria aurkitu zuen ispiluaren** bestaldean. **Zuri zer gustatuko litzaizuke aurkitzea?**
- Mundu baketsu eta lasai bat.

**-Ateren bat irekita aurkituz gero, noren elkarrizketa entzun nahi zenuke?** Haur batzurena, oso elkarrizketa autentikoak izaten baitituzte. Zintzotasunez hitz egiten dute.

**-Altzari auxiliarrak beharrezkoak izan al daitezke?**
Bai, altzari auxiliar askok beste funtzio batzuk ere badituzte, batzuk adibidez, ohe bihurtzen dira.

**-Aberasteko era errez eta azkar bat?**
- Jakinez gero, ez nintzateke nagoen lekuan egongo.

**-Zerk ematen dizu inbidia?**
Ezerk ere ez. Bakoitzak duenarekin egin behar du aurrera.

**-Amets bat?**
Negozioa ireki berri dudanez, ondo joan dadila.

**-Zerk estresatzen zaitu? -** Guztiok daramagun bizimoduak, batetik bestera korrika geratu gabe. Gainera, erraz itotzen naizenetakoa naiz.

**-Erlajatzeko onena? -** Etzan eta ezer ere ez egitea.

**-Dantza egiteko musika bat?**
- Edozein, asko gustatzen zait dantza egitea,

525 11,4
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko, 49-1 Tel: 943 74 11 89

14
Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabolaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 w 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83



# 111-3Sen DertnE 11/010 hinv vilgtonda egillako ID3,I11172 laguerIE ulairtaIs hatek

## Txostenaren arabera, 1.200 ibilgailu pasatzen dira orduero Elgoibartik

rrepide Nazionaleko trafiko bolumenari E uruzko azterketa egin berri dute Injelan-Leber taideak. Trafiko arazoak arintze aldera, hiru errotonda jartzeko gornendioa luzatzen du txostenak. Batetik, Madalako gurutzebidean bitan banatutako en¯etonda bat egitea proposatzen du, semaforo eta guzti. Bigan¯enik, beste errotonda bat jartzeko aholkatzen du Melitonen, semafororik gabekoa. Azkenik, Olasoko industrialdean, N-634 errepideko trafiko arazoak erdietsiko lituzkeen errotonda jarriko litzateke, Madalakoa bezalakoa. Honez gainera, Sigmako zubira eta Urasandira ezkerretik sartzea debekatzea proposatzen du. Bernardo Ezenarro eta Pedro Muguruza artean egingo den bidean ere beste errotonda bat egitea komenigarria izango litzatekeela esaten du ikerketak, hartara, Madala eta Sigma lotuta geratuko lirateke bi norabideetan. Txostenaren beste atal batean Pedro Muguruzako norabidea aldatzeko beharraz ohartarazten da. Modu honetan, herritik irten nahi duten autoek Melitongo zubitik irteteko aukera izanoo lukete.



*Madalako errotondak bi zati izango ditu eta erdian, semaforo*

**Sigmako zubia**

Sigmako zubiko arazoak konpontzeko, honako proposamena egin dule Injelan-eko teknikoek: zubia oinezkoentzat bakarrik izatea, eta autoei eskumatara irteteko aukera baino ez ematea, stop seinale bat jarrita. Hala ere, erabakirik hartu aurretik, herri barruko trafikoaren gora beherak aztertu behar direla dio txostenak.

**Trafiko handia**

Txostenak dioenez, 1.200 ibilgailu pasatzen dira orduero Elgoibartik. Neurketa goizeko 9:15ean egin dute, eta itxura denez, ordu berean 600 ibilgailu pasatzen omen dira batez beste bailarako gainerako herrietatik. Orduaren arabera, Elgoibarrera sartzen edo irteten diren ibilgailu kopurua aldatu ten da. Sigmako zubian adibidez, sei orduz egindako neurketaren arabera, gehiago dira irteten diren ibŕlgailuak (2.126) sartzen direnak baino (1.672). Madalara, berriz, 1.672 auto sartzen dira batez beste, eta 1.185 irteten. Santa Klarako eta Urasandiko auto kopurua txikiagoa da, orduko 150 ibilgailu pasatzen baitira batez beste.

## 41, San Migelgo jaietako zoiketaren zenhald saritua atera da

San Mige1 auzoko jaietan egindako txekorraren zozketako zenbaki sanduna 11.137 da, ordezkoa, berriz, 1.020 zenbakia. Jaien antolatzaileek adierazi digutenez, lehenengo saria eskuratu duen zenbakia Arraten saldu zuten eta saria jasotzeko irabazlea beraiekin jani beharko da harremanetan.

## • Olasoko hilolden hustuketa

Elgoibarko Udaleko Gizarte Ongizate Sailak herritarrei jakinarazi nahi die, Olasoko hilerriko hilobietako erabilpen epea bukatu denez, 1989an hildakoen gorpuzkinak lurpetik aterako direla. Gai honi buruz infonnazio gehiago jakin nahi dutenek telefono honetara dei dezakete: 943 74 10 08.

# Iñaki Perez Armendiak Zaragozako ipuin lehiaketan lehen saria eskuratu du

## Che Guevararen azken uneak kontatzen dituen fikziozko ipuina da

Pilarreko Amabirjinaren jaiak aitzakiatzat hartuta, urtero antolatu ohi dute Zaragozan ipuin lehiaketa. Aurten Iñaki Perez Armendia idazle elgoibartarrak eskuratu du Iehiaketako lehen saria. Sariaren zenbatekoa 250.000 pezetakoa da, baina berak esan digunez, "dirua ondo dago, baina inportantea da ipuina Iiburu batean argitaratua ikustea, eta hori da hain zuzen ere Zaragozan egiten dutena".



Ipuinaren izenburua "Ya no lo siento" da eta eta Iñakik Che Guevararen azken uneak kontatzen ditu narrazio honetan. "Hala ere, ez da kutsu politikoa duen idatzia, fikzioa erabili dut Cheren azken egunei buruzko erreflexio bat e,giteko", adierazi digu Perez Armendiak.

Orain dela bi urte finalista izan zen "Ciudad de Zaragoza" izeneko lehiaketa honetan bertan. Ipuin hau eta ia gehienak gazteleraz idatzi ohi ditu. Berak esan digunez, "gehienbat kanpoko, hau da, Espainiako lehiaketetara aurkezteko idazten ditu lanak, beraz, ezinbestekoa da hemen ingurutik ateratzeko gazteleraz aritzea".

Saria Pilarreko Amabirjinaren jaietan jasoko du, urriaren 15ean hain zuzen ere, Zaragozako udaletxean irabazleei eta finalistei egingo zaien harrera berezian.



## Salbeak eta haurrentzako ekitaldiek izan dute estimaziorik handiena Errosario kaleko jaietan

Aurreko asteburuan hasi eta gaur arte luzatu dira Errosario kaleko jaiak. Astebukaeran haurrentzako ekitaldiak eta pilota partiduak izan ziren nagusi. Infantilen partiduaren ostean, Aranburu eta Sugasti frantsesek osatutako bikotea, Leon, Ansola eta Altzibar hirukote elgoibartarraren aurka aritu zen pilotan. Bertan, Iparraldeko bikotea nagusitu zen 22 eta 18 tantuko emaitzarekin. Ohizkoa den bezala, aurten ere Amabirjinaren oinetan errezatutako Salbeak erakarri du jendetzarik handiena. Baina jaietan izan da beste ekitaldirik ere, besteak beste, haurrentzako jolasak eta merienda, erraldoien kalejirak eta txafliguak. Aurten luze joan dira Errosario kaleko jaiak eta amaiera gaur izango dute. Afari herrikoia izango da Gabi jatetxean eta berau alaitzen Duo Plaentxi eta Dakinta egongo dira.

## • Elgoibartik B autobus joan dira Kilometroak 99ra

Joan den igandean, hilaren 3an, Errenterian ospatu zen Kilometroak 99, ikastolen aldeko jaia. Bertara joateko Elgoibarko Izarrak autobusak antolatu zituen eta 330 lagunek enaan zuten izena. Guztira 6 autobus joan ziren Elgoibartik Errenteriara. Nafarroa Oinezera, Ibilaldira, Araba Euskarazera eta Herri Urratsera joateko ere antolatzen ditu Elgoibarko Izarrak autobusak, baina Kilometroak jaia izaten da elgoibartarrentzat arrakastatsuena.

## • Kale mozketa Madalan

Udaletik jakinarazi digutenez hilaren 13an, 14an eta 15ean Madalako parketik Osasun Zentrora doan bidea moztuta izango da gasa sartu behar dutela-eta. Egun horietan hortik pasa beharrean trafikoa Loritoko aldapatik bideratuko dute, eta Madalara San Frantzisko kaletik joan beharko dira autoak.

## *Kirola Euskaraz* programak fitxa didaktiko berriak argitaratu ditu

Debarroko Udaletako Kirol **eta** Euskara Zerbitzuek entrenatzaileentzako eta irakasleentzako fitxa didaktikoak argitaratu dituzte "Kirola euskaraz" egitasmoaren bamaan. Fitxen aurkezpena joan zen larunbatean izan zen Elgoiharko Olaizaga kiroldegian. Oraingoan, tenisa eta kirol alternatiboak (malabar jolasak, frisbeea, indiaka, badmintona eta patinajea) izan dira aukeratutako kirolak.



Debarroko herrietan fitxa gehienak doan banatuko dira. Kiroldegietan, ikastetxeetan, kirol elkarteetan, liburutegietan eta aisialdi taldeetan banatuko dituzte hain zuzen ere. Izan ere, azken haueтan kirol altematihoak oso egokiak dira umeekin eta gazteekin jolasteko. Dena den, salgai ere jarriko dituzte 1.000 pezetan. Aurkezpenean, Zigor Gartzia eta Jorge Aranes fitxen egileez gain, Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko Hizkuntza Nonnalizaziorako zuzendariak, Arantza Aurrekoetxea eta Lorea Leanizbanutia hurrenez hurren, eta Elgoibarko eta Bergarako Udaletako Kirol zinegotzia eta Euskara teknikaria, Ignacio Mugerza eta Estepan Plazaola izan ziren. Egileen esanetan, fitxak oso erabiltermzak dira, eta kirol horiek egiten hasi nahi dutenentzat ere baliagarriak izan daitezke. Interesatuta egonez gero, Kiroldegira (943 74 44 15) edo Kirola Euskaraz programak duuen bulegora jo dezakezue (943 79 55 87).



ZORIONAK UNCETAri
125. urteurrenean
Eskerrikasko zuen laguntzagatik.
ESKUBALOI TALDEA
ELGOIBAR


# 21ƫn0, urteko udapako amaituta izanci Drs Musikeskolako edifizioa

## Kontserbatorioaren 1 50 milioi pezetako kostua Udalak ordainduko du

Flgoibarko Musikeskola berriko obrak aurrera doaz piskainaka. Eraikuntza berri hau beharrezkoa da musika ikasten ari diren elgoibartarrak biltzeko; izan ere, gaur egun herriko hainbat edifiziotako geletan daude sakabanatuta ikasleak. Edifizioak 150 milioi pezetako kostua izango du eta guztia Udalak ordainduko du dauzkan baliabideekin.

Badira hilabete batzuk eraikuntzaren egitura eraiki zutela, eta uztailean hasi ziren fatxada egiten eta teilatua estaltzen. Bigarren fase honek 53 milioi pezetako kostua dauka eta urte bukaerarako amaitzea espero bazuten ere, baliteke obrak zertxobait luzatzea.



*Uztailean hasi ziren teilatua estaltzen eta fatxada egiten. Bigarren fase honek 53 milioiko kostua dauka.*

Hurrengo etapan edifizioa barrutik antolatuko dute, eta horretarako hainbat gela egituratu beharko dituzte. Alkatearen esanetan, hirugarren faseko obrak ordaintzeko nahikoa diru dago, beraz, ez da arazorik egongo lanak aurrera eramateko. Baina bigarren faseko obrak motel doaz, eta agian hirugarrena egiten hasiko dira aurrekoa bukatu aurretik. Hiru etapak amaitu ostean, edifizioaren barruko aldea egokitu beharko dute hurrengo ikasturtean klaseak bertan eman ahal izateko. Gauzak ondo joanez gero, 2000. urteko udarako dena amaituta egongo dela adierazi dute Udaleko arduradunek.

### Ikasleen sakabanaketa

Kontserbatorio berriak, Inazio Bereziartua Musikeskolak klaseak emateko orduan zeuzkan beharrak asetuko ditu. Sortu zenetik izugarrizko gorakada izan du Musikeskolak, eta gaur egun 400 ikasletik gora daude matrikulatuta.

Baina ikasle kopuruak gora egin badu ere, orain arte ez da guztientzako ikastetxe bakar bat egon. Ikasleak herriko hainbat edifiziotan sakabanatu dituzte, Aita Agirreko lokaletan, Merkatu Plazan eta Kultur Etxean hain zuzen ere. Edifizio berria amaitzen dutenean, ordea, guztiek bertako lokaletan jasoko dituzte klaseak.

Kontserbatorio berriak lau solairu izango ditu, eta bertan, gelak, bulegoak eta zerbitzu guneak egongo dira. Azkenengo pisuan auditorio bat egitea erabaki dute, eta lokal horretan rnikrofonoak, anplifikadoreak eta grabazio mahaia jarri nahi dituzte. Horrela, bertan entsaiatzeko eta, agian, egunen batean herriko taldeek maketak grabatzeko aukera izango dute.

### Lokalak hutsik

Musikeskola berrian ikasle guztientzako lekua izango denez, orain arte erabili dituzten lokalak hutsik geratuko dira. Hori dela-eta, Udaleko arduradunak pentsatzen ari dira lokal horiei zein erabilera eman. Oraindik erabaki gabe badago ere, baliteke Aita Agirre plazako lokalen fatxada bere horretan uztea eta barruan lokal handi bat egitea. Lokalberri horretan gela handi bat egongo litzateke, eta baita herriko elkarteentzako beste hainbat gela txiki ere. Hala ere, oraindik luze joko du hori horrela izango den ala ez erabaki artean.

## EH alderdiaren azalpena irailaren 24ko plenoari huroz

EH alderdiak irailaren 24ko plenoan izandako abstentzioa argitzeko prentsa oharra bidali digu. Bertan adierazten dutenez, "printzipioz EH ez dago Albitxuri lur industrial biburtzearen aurka. Guk, aurreko legealdian bezala, metodologia arazo bat ikusten dugu". Plenoan esan zutenez, "gure planteamendua inongo pausorik eman baino lehen, lur eremu hori aproposa den ala ez ikertzea da, eta hala eskatu izan dugu eta eskatzen dugu. Honetarako ikerketa geologiko bat egitea beharrezkotzat jotzen dugu". EHko kideek ikerketa honen erantzunaren arabera hartuko lukete azken erabakia.

# Txiki BARREN

## LHko eta DBHko IKASLEEKIN EGINDAKO 57. GEHIGARRIA



endaroko San Jose eskolan, pasa den ikasturtean egindako irteeretako argazkiak ordenatzen hasi direnean, argazki polit hau agertu zaie. Lehen Hezkuntzako 3. zikloko ikasleak agertzen dira irakasleekin eta monitoreekin. Acedon ateratako argazkia da eta antzinako Lizarra-Gasteiz trenbideko tunel luze baten sarreran daude. Tunelak 1.800 metro inguru ditu eta barru aldeko iluntasuna aprobetxatuz, jolasean jardun zuten, pasabidea alaiagoa eta laburragoa izateko.

Acedon egon zirenean ostruka granja bat eta esparrago eta piper kontserbera bat ere ikusi zituzten. Esan digutenez, hiru egun zoragarri pasa zituzten bertan.

### 7xe:ttea,

Jantzidendara sartzen da emakume bat. Hau probatu eta hura ikusi, batekin eta bestearekin hitz egin eta kaxa guztiak zabalerazi ondoren, galdetzen du:

— Ez al dago hemen lagunduko didan saltzaile buruargiagorik?

— Ez, andrea, ez; zegoen argienak ospa egin du zu sartzen ikustean!



## Jakitunen eskutik

# Norekin maitemintzen dira haurrak?

Haurrak maitemindu egiten dira oso txikiak direnean, nagusitzen diren heinean ukatu egiten badute ere. Umetan maitemintzea ia denei gertatzen zalen zerbait da, lagunekin jolasean edo borrokan aritzen diren bezalaxe, maitemindu ere maitemindu egiten dira.

Haur batzuk pertsonoje famatuekin maitemintzen dira, beste batzuk bizilaguna ikusi orduko gorritu egiten dira eta badira beraien irakasleekin maitemintzen diren umeak ere. Gehienetan, beraiengana gerturatzen eta goxotasunez hitz egiten dieten pertsonak dituzte gogoko.

Hiru urterekin, gutxi gorabehera, hasten dira sentimendu hori garatzen eta hazten diren heinean, sentimendua handitzen doa. Maila gorena 7 eta 12 urte bitartean iristen da, baina nerabezaroan piskanaka desagertu egiten da.

Adin horretako haurrek agerian jartzen dute blhotza buruari nagusitzen zaiolct askotan. Gero, gustuko duten mutil edo neskaren ezaugarri fisikoak izango dituzte kontuan, baina hain txikiak izanik, ez dira horiekin konturatzen. "Flechazo" delakoa gertatzen den unetik bertatik, irudinnena jarri ohi dute umeek martxan, eta gustuko duten hura ipuinetako edo pelikuletako heroi bat bailitzan irudikatzen dute, benetan ezer gutxi izan arren.

Maitemintzea, adituen ustez, haurraren izaeraren araberakoa da gehienetan, edo baita erreferentzia gisa hartzen dituzten modeloen araberakoa ere. Umeak rol batean oinarritzen dira, eta hortik abiatuta maitasun platonikoa idealizatzeko joera izaten dute. Baina beraien ezagutza handitu ahala konturatzen dira ez dituztela beraien nahiak betetzen eta maiteminak behero egiten du.

Umetako maitasuna maitagarrien ipuinekin pareka genezake. Ezaugarri batek berehala lilura dezake haurra, nahiz eta benetan pertsona maltzurra izan. Baina denok egiten gara nagusi eta haurrek urtetan gora egiten dutenean ere, irudi osatuago bat lortzen dute. Ezaugarri onak edo txarrak zein diren jakin orduko, bere printze edo printzesa beste batzuekin konparatzen hasiko dira. Honela, norbere antzeko interesak eta nahiak dituzten bikote-kideak aukeratuko dituzte. Baina hori gertatu bitartean, nagusiek kontuan izan behar dute aski dela pertsona batek zerbait ezberdina egitea gaztetxoenak maitemintzeko. Beraz, haurrak beren kasa pentsatzeko gai diren artean, nagusiak gustuko izango dituzte.

1TURRIA: La revisto

io 40 io io

## Zer iritzi daukazu .....e/vreroa- ri buruz?



E/ l4 emzezIm/ emei4s4 14eothd4.

OTSALAR URAIN, 6 urte



0414,4,14444 1;44.e444a4U10 4t4 A414p.

Gainera, aire beroa botatzen du.

ANTXON SEGUNDO, 8 urte.



Gorputzerako oso txarra da eta horre

egiten da.

GOTZON ZULAIKA, 9 urte



191[ÑAT
ULAISI
**11 urte**

# Gct cle debalde

1 • Nori kontatzen dizkiozu sekretuak?
2 • Zer galdetuko zenioke hola majiko bati?
3 . Janaririk gustukoena?
4- Ba al dukazu amuletorik?
5 • Zein da zure gaitzizena?
6• Noren autograloa izan nahi zenuke?
7 - Gustuko abesti bat?
8 Zein pelikulako protagonista izan nahi zenuke?



11ARIT7
LALLAÑAGA
**7 urte**

1. Inori ere ez.
2. Ea munduak zenbat urte iraun behar dituen,
3. Makarroiak.
4- Ez.
5. Beñi.
6. Pantanirena.
7- Back Street Boysen *Milenium.*
8- Goenkalekoa.

1- Lagunei.
2. Ea ondo biziko naizen.
3- Okela.
4- Ez, ez daukat.
5- Ez daukat gaitzizenik.
6- Mikel Goñi pelotariarena.
7- Alaitz eta Maiderren *Txanpon baten truke.*
8- James Bonden pefikula batekoa.

## Zer da Ptel-wvia- ?

WWWWWW'ididie



Zerbait tristea gertatzean edo mina hartzean sentitzen den ahoko korapilo lodia. Tristezia adierazten da normalean.



Sentimenduen gauza tristea edo barregarria izan daiteke. Begietatik irtetzen diren malkoak dira.

MARIA GARATE G ULTE

ILLART ULAISI / URTE



Negarra tristura da.



Euria bezalako tristura da.

JOSTLA VAI 11 urte



Familiako bat hiltzen denean malkoak irteten direnean.



Sentimendu bat da, eta begietatik ura ateratzen da.

**ERANTZUNAK: 1 -** Loroak 2- Noren kontzertura joango zinateke gustura? **4-** Eskutitza, masusta, itsasontzia.

o6aii ola lichn6
upo zluou
ivolanp uolaup onolz!ci
pciop acio6 nwin onni

9.1o6!
Izijaci uooiozpolioz
!no6 **uDoɹ**olzo6
pnz uolawn —

.ouariop acio6 Tup
ouap oz4u!w acio6
`ozijaci u!ozaci oz4ol!
opnz u!ozaci oosn —



'1311111ZInDWSV **4.**

**3. ZOOD1 inne pluar ɹuntuak**

`DpIZILLID111 1141191101 Die



•„or4sn6 ino
Ilsacio 0.189 oia
Dapio4 l!oz uazuDisn6
oriainp uazupluol
zaseia6ui •cualiaskg
iaaijs Ipog„

**apn g**
**31VS1/11111**
**1Z1111Y0**

•uazwiu
uo6a ala uoaueiv
1.1.1048 DJOIDIDUGW 'ijoz
uazioisne olso
D4a aizno ualpa
lomod !isaqy 10.19L1
-anapiow o4a zpoly,

**alan 6**
**Z11110.11Z**



¿.................................................................



**2. ¿nɓǝip nopin6 iaz**

**1. 004 Dp Jaz**

# p1113111513 MOZO nrsocicuoquaa

G A Z T A R 4 A

# gAztE ak
## errobera gainean

*Duela gutxira arte gazteak bizikletan edo oinez ibiltzen ziren, baina Elgoibartik pasiaratxo bat eman, eta berehala ohartuko gara gaurko gazteak motorrean ibiltzen direla. Scooter delako motorrak modan daude. Guk, gazteen ahotik jakin nahi izan dugu motor hauei ateratzen dieten erabilgarritasuna.*

1-NOIZTIK IBILTZEN ZARA MOTORREAN?
2-ZERTARAKO ERABILTZEN DUZU MOTORRA?
3-ONGI AL DERITZOZU MOTOZIKLETAK DERRIGORREZ MATRIKULA-TZEKO jARRI DUTEN ARAUARI?
4-GIDA-BAIMENIK BEHAR AL DUZUE?
5-KEXA ASKO IZATEN AL DUZUE MOTORREN ZARATAK ETA ABIADURA DIRELA-ETA?
6-ORAIN MOTORRA DAUKAZU. KOTXEA IZATEA AMESTEN AL DUZU?

### IGOR TORRES,
[18 urte]

[ Duela bi urte Cady bat erosi nuen. Orain Scooterra daukat.
[2] Udako oporrak Malagan pasatzen ditat. Hiri handia denez, batetik bestera erosotasunez mugitzeko erosi nuen motorra bertan. Elgoibarren behar handirik ez izan arren, mesede handia egiten dit, adibidez, Mintxetara igotzeko.
[3] Lapurretabat iruditzen zait. Udaletxekoek eta tralikoko arduradunek guri dirua ateratzeko sortu dute lege hori. Motorrentzako aparkalekuak egin beharko lituzkete, eta ez alperrikako legeak atera.
[4] Lizentzia izatearekin nahikoa da. Gidatzeko oso errazak dira moto hauek eta gida bairnena eskatzea beste lapurreta modu bat izango litzateke.
[5] Bai. Hala ere, 80 dezibelio baino gutxiagoko zarata ateraz gero, legea betetzen dugu. Gure motorrek ez dute maila hori gainditzen, bestela ez lituzkete egingo.
[6] Ez, moto haundiagoa erostea gustatuko litzaidake, zazpi ta erdiko moto bat-edo.




### AITOR CRESPO,
[].7 urte]

[1] Duela urte eta erditik nabil motorrean. Hasieran mendiko motor bat izan nuen eta orain Scooter bat daukat.
[2] Garraiobide moduan erabiltzen dut. Eibarren ikasten dut eta bertara motorrean joaten naiz. Baina baita dibertsio moduan ere. Gauza asko egiteko aukera ematen dute motor hauek.
[3] Alta emateagatik eta rnatrikulatzeagatik 5.000 pta. ordaindu beharko ditugu hasieran eta 2.000 pta. inguru urtero, zergak direla-eta. Lapurreta bat iruditzen zait.
[4] Nire kasuan, 50 zenthnetro kubiko baino gutxiagoko motorra dut, eta lizentziarekin nahikoa da. Hala ere, orain, azterketaren bat pasatzea eskatzen dutela uste dut.
[5] Bai, baina autoek dituzten eskubide berberak ditugu.
[6] Bai, lehenik autoa erosteko asmoa daukat. Gero, motor haundi bat erosiko dut ahal dudanean.








U111INICICtAl ad
Aizp L4 Nt4CI

inmacuIad da Aizpurua, 63 urteko elgoibartarra, Benidormen bizi da. Jubilatu baino 4 edo 5 urte lehenago, Donostian etxe bat erosi eta bertara joan ziren bizitzera bera eta senarra. Behin, Insersok antolatzen dituen bidaia batean Benidormera joan ziren, eta oso ondo pasatzeaz gain, han bizitzen geratzea erabaki zuten. "Donostiako etxia saldu eta Benidorren anbiente guztixa dauan kalian erosi gendun pisua. Senarrak azaleko gaixotasun bat daka eta hango eguzkixak eta giro onak izugarrizko mesedia in zionez, ez gendun erabakixa asko pentsau biharrik izan". Hori duela 7 urte izan zen eta dagoeneko Benidormen enpadronatu ere egin dira, baita etxez aldatu ere. Osasun arazoek bultzatuta alde egin zuten arren, "Euskal Herri txiki bat topau dou hemen. Euskaldun mordo bat bizi da eta txikiteoa ere arazorik gabe in leike. Eibartar koadrila bat adibidez, soziedade bat sortzekotan dabiz. Donostian bizi nitzanian baino sarrixao entzuten dot jendia euskaraz berba itxen". Elgoibarrera urtean behin gutxienez etortzen dela esan digu, "Gure-Biden ditxuten lagunak bisitau eta herrixa nola dauan ikusteko". Bitartean Mediterraneoko eguraldia ahalik ondoen aprobetxatzen du, eta martxotik aurrera asko gustatzen zaio hondartza bainutxo bat hartzea.

VIAJES "11111 BIDAIAK
BILBRO EXPeESS
**bidaia agentziak**
**babestutako atala**
Foruen enparantza, 3
Tel: 943 74 39 12

# O G O R A T U Z

## Tiburcia Arrillaga Zubiaurre

## 897-1980)



• 1897ko urriaren 3an jaio zen, San Andres Etxeberriko Agarre Azpiko baserrian. 4 anai-arreba ziren, bera bigarrena. Haurtzaroko ikasketak herrian bertan egin zituen.
• Sasoi hartan koadrilako lagunekin batera makina bat jolas egiten zituen etxe aurrean edo auzoko baserrietan. Baina baserriko lanak egiten ere asko lagundu zien familiakoei.
• Piska bat hasi zenean, baserriko arlo guztietan gogor lan egitea tokatu zitzaion. Hala ere, orduko ohiturei jarraituz izan zuen astirik Santa Eufemia, San Andres Etxebarri, San Migel eta beste hainbat lekutan egiten ziren erromerietara joateko. Senarra erromeria batean ezagutu zuen. Karlos Aranburu, Elgoibarko `Zubizarreta' baserriko maiorazgoarekin ezkondu zen. 5 seme-alaba izan zituzten.
• Baserri egokia zen eta gogor lan eginaz egin zuten aurrera. Tiburtziak eta bere amaginarrebak, otarra handia jeneroz bete, buru gainean jarri, eta pultsuan ekartzen zuten Elgoibarko azokara. Garai hartan azokako postuak zenbatu gabe zeuden. Saltzailerik goiztiarrenak lortzen zituen lekurik onenak eta Tiburcia horretan saiatzen zen. Esnea ere ekartzen zien bezeroei.
• Bitxikeria gisa aipatu behar da, Tiburtziren semeak hartutako eskailuak Eulogio Estarta ospetsuari ematen zizkiola, hau zalea baitzen.
• Tiburtzi, familia girokoa, sinesmen handikoa eta borondate handikoa zen. Familiarekin batera, San Antonio, Arratera etab.era bidaiak egin zituen. Familia ezaguna izan zen herrian. Atsegina zen eta lagun giroa gustuko zuen. Baita euskal kantak abestea ere.
• Umore ona zuen, eta asko gustatzen zitzaizkion "Sisilion" baserrian auzoko jaietan lagunekin izaten zituen hizketaldiak.
• 1960ko abenduaren 16an hil zen 63 urterekin.

Juanito Gorostiza




Pedro Muguruza, 5
Tel: 943 74 08 06
20870 ELGOIBAR

n
5'— —
Urruura deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

943 20 35 15
ABERIAK 943 20 31 25
Bista Eder, 11 (sotanoa)
• 20600 EIBAR



z: ifoili> j p

ste honetako eetratua Maria Luisa Kruzele- utzi digu. Erretratua 1963. urtekoa da. Muguzako ikastetxeko ikasleek urtean behin mendira irteera bat egiteko ohitura zuten. Izan ere, argazki hau Morkaikora egin zuten mendi irteeran ateratakoa da. Ikus dezagun zeintzuk diren neska koskor hauek:

Goitik hasita ezkerretik eskumara: **Ma Jesus Salegi, Arrate Diego, Ma Carmen Prado** eta **Pili Martinez.**

Bigarren ilaran: **Anita Martin** (t) eta **Mari Karmen** (andereñoa).

Beheko ilaran: **Marivi Gonzalez, Gloria Mateos, Mari Juli Leiaristi, Nieves Prado, IVP Karmen Silva, Begoria Alonso, Josefa Carrasco, IVIa Luisa Kruzelegi, IVP Luisa Astigarraga, Pili Gonzalez, Anabel Monje, Mari Sol Perez, Ma Vitoria Arribillaga** eta Ma **Tere Polo.**

Belauniko, ezkerretik eskumara: **Aurea Conde, M" Tere Campello, 1VI" Carmen Gurrutxaga, Amaia Epelde, Mari Carmen Lopez, Kati Moreno, Aurita Conde, Charo Oliveira, Asun Odriozola, Charo Diaz** eta **Rosi.**

Lurrean eserita: **Ana Mari Odriozola, Begoña Gil, Kontd Martinez, Kontxi Lariz, Kati Carrasco** eta **Kontxi Gonzalez.**

# "Ins9 tua punterixa ona eukitzia baino garrantasunia da hatzuetan"



## Dani Arenas

- **Adina:** 22 urte.
- **Zelako eskopeta daukazu?** Laurona etxeko bat.
- **Zenbat txakur dituzu?** Hiru, bi setter eta "Lur" izeneko spaniel bretoi bat.
- **Beste zaletasunik?** Eskalada.

**-Elgoibarko Ehiza Xeheko TxapeIketa irabazi zenuen. Zer moduz?** Oso ondo. Eguraldi euritsua eta haizetsua in zaban eta konpetizio gogorra izan zan, baina txakurrak oso ondo aguantau zaban, eta gogortasun horrek rnesede in zigun. Elgetako Eskualdeko Ehiza Txapelketan, berriz, bigarren in naban baina ez nitzan oso gustora gerau. Txapeldunak 7 faisai bota zitxun, eta nik, berriz, 5 presentau arren, 6 bota nitxun, baina zoritxarrez seigarrena ez gendun bilau. Zeozer gehixao in ahal naban inpresiva gerau jatan.

**-Nola entrenatzen da ehiza txakur bat?** Ordu mordo bat sartu bihar dia. Mendixan eta ehizan asko ibilitxa, eta pazientzia handixakin. Lau hilabete ditxuanian hasten naiz entrenamentuakin, pelotia bota eta holako gauzekin. Txakur arraza batzuk errazao ikasten dabe.

**-Zein dira ehizarako arrazarik egokienak?** Ehizatzen dan txorixan arabera, txakur batzuk beste batzuk baino egokixauak dia. Bi arraza multzo nagusi daoz; britanikuak eta kontinentalak. Oilagorretarako britainiar arrazakuak hobiak dia. Setter eta Pointer guztixak, adibidez, britainiarrak dia, buztan Iuzia eukitzen dabe. Arraza kontinentaleko txakurrak, berriz, granjetan hasitako eperrak eta faisaiak ehizatzeko egokixauak dia, motelauak dia eta distantzia motzetan ibiltzeko hobiak. Draterrak eta Spanielak dia mota hontakuak.

**-Eta jabeak nola entrenatzen du punteria?** Punterixa nahiko txarra dakat, eperretarako biharrezkua da tiro ondo eitxia. Hala ere, arrastua segitxuz harrapatzen diazen txorixekin, beste gauza batzuek inportantzia gehixo dake. Ehiztarixak instintua euki bihar dau, txori bakoitzan ohitxurak ezautu, eta txalcurrakin oso konpenetrauta eon. Pertsona bat izango balitz moduan hitz egiten diot. Bestalde, egoera fisiko ona eukitziak eta mendixan ibiltzen jakitziak asko laguntzen dabe. Konpetizivak gogorrak eta luziak izaten dia, gutxi gorabehera 4 ordukuak.

**-Zenbat meritu du txakurrak eta zenbat ehiztariak?** Txakurrak ixa dana, %90 gutxi gorabehera, ehiztarixak %5 eta gainontzekua suertia izaten da.

**-Bere zailtasunagatik, zein txori harrapatzeak ematen dizu poztasun gehien?** Oilagorrak. 6 edo 7 ordu mendixan ibili, eta gertau laike oilagor bakar bat ere ez ikustia.

**-Non ibiltzen zara ehizan?** Beti hemen inguruan. Benaventen (Zamoran) dauan koto batera inbitau moduan jun izan naiz, baina nahixao ditxut inguruko bazterrak.

**-Euskal mendietan ba al dago horrenbeste ehiztarirentzako txoririk?** Ehiztari gehixegi gaude. Ehiztarixak baino, eskopetero asko daoz. Hauei berdin jakue oilagorra, usua edo txantxagorrixa bota. Ikusten daben dana lapikorako da hauen Iegia. Benetako ehiztarixa oiIagorretara irtetzen bada, hortan bakarrik zentratzen da.

**-Ehizarako zein dira kondizio onenak?** Haize piska bat itxen daban egun argixak diaz onenak. Haiziakin txakurrek errazao hartzen dabe txorixen arrastua edo usaia.

## • Haurrentiako eta helduentzako eskalada ikastaroak

LLI

Cf) Morkaiko Mendizale Elkarteak, Elgoibarko Udal Kirol Patronatuaren Iaguntza; CO eskalada ikastaroak antolatu ditu. Ikastaroak —1 haurrei eta helduei zuzenduta daude eta uniaren 1San hasiko dira Olaizaga Kiroldegian. Josu Merino eskalatzaile elgoibartarra - izango da ikastaro hauen arduraduna, Izena emateko epea uniaren 14an bukatuko da. In- CC teresatuok Kiroldegira zuzendu edo 943

/ 49. 1 J Le11111.111.11i1 Qel LICLUICULL1e.

## • Alkortamendi eta Erentzamendi bitarteko ehiza lekuak libre daude

Mendaroko Kilimon Zahar Ehiza eta Arrantza Elkarteak aditzera eman nahi du, Alkortamendi eta Erentzamendi bitartean dauden ehiza lekuak ehiztari guztientzat libre geratuko direla 1999-2000ko ehiza denboraldian. Ehiza gune hauek zorteoz erabakitzen dira, baina gas naturala sartzeko egiten ari diren lanak direla-eta aurten ez zozketatzea eraoatu auie.

## • Elgoibarko Kirol klubentzako dirulaguntzak

Udal Kirol Patronatuak EIgoibarko klubei gogorazi nahi die dirulaguntzak jasotzeko beharrezkoak diren dokumentuak aurkezteko epea urriaren 20an bukatzen dela. Udal Kirol Patronatuak banatzen dituen dirulaguntzak jasotzea nahi duten klubek, Olaizaga kiroldegian aurkeztu beharko dituzte beraien eskaerak urriaren 2fla baino lehen

## Eskubaloiko 1999/2000 denboraldia

# Kadeteetako eta jubeniletako neskak

*Aste honetan eta datozenetan, Elgoibarren ditugun eskubaloi taldeak aurkeztuko dizkizuegu. Guztira 7 talde dira. Hona hemen Euskal Ligan ari diren jubenil eta kadete mailako nesken taldeak.*

Iaz, *thiceta Elgoibar*, jubeniletan nesken taldea, hirugarren geratu zen Liga Txapelketan, eta aurten, txapelketa irabaztea izango dela helburu nagusia esan digute. *Pagoaga Elgoibar* kadete kategoriako taldeak, berriz, zaila izango du iazko denboraldia hobetzea edo berdintzea. "Iaz Euskadiko txapeldunak izan ginen eta Espainiako txapelketan 5. postua eskuratu genuen. Hala ere, ligako lehen hiru postuetan sailkatzeko moduko taldea dugu". Bai jubenil neskek bai kadete neskek, zapatuan, hilaren 9an hasiko dute 1999-2000ko liga. Bi taldeek Gazteizko *Eharialdea* taldeko jubenilen eta kadeteen aurka neurtuko dituzte indarrak.



### Kadeteak

**PAGOAGA ELGOIBAR.** Atzean, ezkerretik hasita: **Igor Lizarralde** entrenatzailea, **Maria Bilbatua, Maite Uriarte, Ainhoa Uriarte, Nere Aranberri, Guruzne Urkidi, Eire Vila, Iraia Silva, Amaia Madariaga, Ainara Ladron** eta **Estitxu Perea.**

Makurtuta: **Judith Zabala, Edurne Juaristi, Enara Gorostiza, Ainara De Pedro, Amaia Otero, Gorane Salaverria, Amaia Polo** *eta* **Nerea Lendinez.**



### Jubenil neskak

**UNCETA ELGOIBAR.** Atzean, ezkerretik hasita: **Ales Arrieta** entrenatzailea, **Erika Etxabe, Sare Gurrutxaga, Maite Arenal, Maddalen Bergara, Oihana Apellaniz** eta **Itziar Gerrikabeitia.** Makurtuta: **Begoña Merino, Ainhoa Gonzalez, Izaskun Sarriugarte, Estitxu Astigarraga, Andrea Iriondo, Lur Izagirre** eta **Itziar Leiaristi.** Argazkian falta diren jokalariak **Ane Garmendia** eta **Anari De La Cruz** dira.

## MAITZAN

**Futbola**

Hernani 1- Elgoibar 0 (Jub. E.L)
Eibartarrak 0- Elgoibar **4 (Kad.)**
Elgoibar 3 - Urola 0 (Neskak)
Elgoibar 1- Tolosa **1 (Inf.)**

**Areto Futbola**

Zur Ta Lur **4-** Orioko Tab. it (1. maila)
Zur Ta Lur 3- Ataun Generali 3 (Auton.)

**Pilota,**

22:00 Lagunak 22 **-** Bergara **21 (Kad.)**

**Idarraga Kafeak 2. saria**

**HAUNDIko jokalari** erregularrena 99/00

| **JOKALARIA** | PUNTUAK |
|---|---|
| 1- Castro | 8 |
| 2- Castillo | 8 |
| 3- Bravo | 7 |
| 4- Alberdi | 5 |
| 5-Txasio | 4 |
| 6- Polo | 3 |
| 7- Bague | 3 |
| 8- Aranberri | 3 |
| 9- Zulaika | 3 |
| 10- Caro | 2 |
| 11- Fernandez | 2 |
| 12- Loren | 2 |
| 13- Alcorta | 2 |

## AGENDA

**Eskubaloia,** Kiroldegian

Larunbala, 9
16:00 Pagoaga Elg. - Eharialdea (Kad. nes.)
17:30 Uncela Elg, - Eharialdea (Jub. nes)

Igandea, 10
10:30 Gaur Elg. - Arrasate Kir. (Kad. mut.)
12:00 IMH Elg. - Urnieta (Senior mut.)

Astelehena, 11
20:00 IMH Elgoibar- Urola (Senior mut.)

**Futbola,** Mintxetan

15:30 Elgoibar - Batasuna **(Jub.** E.L)
17:15 Pedrusko - Zumaiako (1. erreg.}

Igandea,10
12:00 Elgoibar- Aurrera Ondarroa **(Kad.)**

**Aslearlea, 12**
**17:00** Haundi - R.Sociedad B **(3.** maila)




## Lokartuta!!!!

etidanik izan dugu, atzerritar musi-
a mundua aztertzerakoan, E'EBB-ko edo Ingalaterrako musika entzuteko joera, orokorrean beti ere. Joera honek beste zenbait Iekuetako musika gu-ociestea dakar. Talde interesgarri asko izkutuan gelditzen dira. Tamalez, musikaren tendentzi gehienetan gertatzen da hori. Frantziak baditu pop-aren erraiak sakoneraino sarturik, nahiz eta guretzako nahiko bereziak izan errai horiek. Burdeos aldeko musika da adibiderik garbiena. Bertan, erradikalagoa eta bortitzagoa den soinua aurkezten dute SLEEPPERS taldekoek beraien bigarren diskoan. Vicious Cirele disketxe frantsesak argitaratu du "Subconscious Nocturnal activity" diska. Talde hau, Unsane eta Neurosis bezalako talde bortitzekin parekatu daiteke, genio bizi bera mantentzen baitute. Flimkote zaratatsu honek, doinu gogorrak eta zoramenez txertatutako giroa agenan usten ditu. Arnasik hartzen utzi gabe kolpatzen dituzte entzuleen belarriak 70 minutuz. baita nireak ere. Kitarraren soinu ganatza eta baxuaren kolpeak baterijolearen enitmoekin korapilatuz dihoaz izugarrizko espiral sonikoak lotuz, beti ere eskematikoki man̈aztuz, ondorio zuzenagoa eduki dezan. alegia. Talde interesgarri bat aurkitu dut, eta horrekin batera zigilu interesgarri bat. Bertan, Sabot, Belly Button edo Tantrum bezalako taldak izkutatzen dira.

Iban Urizar






# Elualharlokarms[Idalz-AblakaftakEGuku oinErriakkaleratudirs

### 9 urtetik 18ra bitarteko neska-mutifek har dezakete parte

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak urtero antolatzen duen 'Elgoibarko Izarra Idatz Lehiaketak 99'ko oinarriak kaleratu dira. Lanak Elgoibarko Izarra Elkartera (Ubitarte 4) eraman behar dira abenduaren 17a baino lehen, kartazalean maila ondo zehaztuz. Guztira 5 maila dau*de,* eta elgoibartarrek ezezik, bertan ikasten ari direnek ere har dezakete parte. Lanak hiruna alez aurkeztuko dira (3 kopia), izenburu edo giltz-lema batekin eta egilearen inolako ezaugarririk gabe. Sarituak aukeratzeaz arduratuko den epaimahaia Urruzuno Literatur Taldekoek osatuko dute. Bestalde, lehiaketan parte hartu eta sari banaketara azaltzen direnen artean diskak eta liburuak zozketatuko dira. Sari banaketa San Anton jaien inguruan izango da.

| IlAILAK | LANA | SARIAK |
|---|---|---|
| **LHko 3-4** | Marrazkia eta gutuna<br>Gaia: Olentzero | 5.000 (1)<br>3.000 (2)<br>2.000 (3) |
| **LHko 5-6** | **'Gutuna** (orri 1)<br>Gaia: Deabruari<br>*ETXEGIÑA bertso paperak<br>(6 kopia edo 2 bertso)<br>Gaia: librean | 7.000 (1)<br>4.000 (2)<br>7.000 (1)<br>4.000 (2) |
| **DBHko 1-2** | *Ipuinak (2 orri)<br>Gaia: "Ama, artista izan nahi dut"<br>*ETXEGIÑA bertso paperak<br>(8 kopla edo 3 bertso)<br>Gaia: "Ikusezina banintz¯ edo<br>"Bekatua egin dut" | 10.000 (1)<br>7.000 (2)<br>10.000 (1)<br>7.000 (2) |
| **DBHko 3-4** | Ipuinak<br>(3/4 orri)<br>Gaia: librean | 15.000 (1)<br>10.000 (2) |
| LOGSE 1-2 | Ipuinak<br>(3/4 orri)<br>Gaia: librean | 25.000 (I)<br>15.000 (2) |

## 'Laiotz' literatu allizkarija kalean




9Qko `Elgoibarko Izarra Idatz-Lehiaketak 99' Ohteratur sariketako irabazleen lanak biltzen dituen *'Laiotz'* Iiteratur aldizkaria pasa den urriaren lean, ostiralean, kaleratu zen. 1.000 ale inguru banatu dira ikastetxeetan irakurtzeko adinean dauden ikasleen artean. `Laiotz' literatur aldizkariaren 6. zenbakia izan da honako hau. Bertan, maila bakoitzeko irabazlearen lana ezezik, bakoitzarekin egindako elkarrizketa ere irakur daiteke. Lanen egileen izaera eta gustuei buruzko hainbat datu azaltzen zaizkie aldizkariko Gogora dezagun iaz, 391 lagunek hartu zutela parte lehiaketan; 271 lan aurkeztu ziren prosa lehiaketan, eta 120 lan Etxegiña bertso-paper lehiaketan. Beraz, irakurleek kalitatezko literaturaz gozatzeko aukera izango dutelakoan gaude. AldizIcaria jaso nahi izanez gero, Elgoibarko lzarraren bulegora jo (Ubitarte 4, behea).

# os Ba

# 66'_Dfis -ekin porlk nag® baina obetti darekeela usi̇̈e t'9

*Karlos Balseirok kaleratu berri du Rubanakahan, la tierra plana' diskoa. Hori dela-eta, elkarrizketa egiteko deitu diogu eta baiezkoa eman digu. Hala ere, nahiko harrituta etorri da gure artera, musika munduan 10 urte inguru daramatza eta hau izan baita egin dioten lehen elkarrizketa. Luze jardun digi Karlosekin hizketan eta hona hemen berak kontatu dizkigunak.*




/ NOLA SARTU ZINEN MUSIKA MUNDUAN?

Musika gustuko nuen, eta beste batzuek musika egiten zutela ikusita, imitatzen hasi nintzen. Autodidakta moduan hasi nintzen, ez oso era ortodoxoan, bi sokako kitarra jotzen. Musika egiteko edozer gauza erabil zitekeela uste nuen eta gaur egun ere hala uste dut.

ETA DISKOAREN IDEIA NONDIK ETORRI DA?

Denboralditxo bat baneraman ezer egin gabe. Bost abesti egin eta ikuskizun bat montatu nuen. Miguel Fuentesek bere filminekin lagundu zidan eta disko bat grabatzeko adina material banuela ohartu nintzen. Diskoa etxean grabatzeko tresnak eskuratu nituen, eta guztia prest neukanean gogoa falta zitzaidala konturatu nintzen. Orduan, Miguel Fuentesek ztnimatu ninduen eta grabaketa etxean bertan egin nuen.

DISKOA ERRONKA BEREZIA IZAN DA, EZTA?

Ekoizpenari dagokionez, erronka pertsonala izan da. Gainera, alde artistikotik lan kolektiboa dela esan dezaket. Proiektuan Miguel Fuentes eta biok gaude sartuta eta orain Ermuko antzerki tailerreko jendearekin lan egitea pentsatu dugu. Taldean "performanee" delakoa egiten dugu. Musika grabatuta dago eta abotsa zuzenean sartzen dut. Horri laguntzeko filminak, marrazkiak... daude, gehienetan diapositibekin egin ohi dugu.

/ 11 ABESTIZ OSATUTAKO DISKOA DA.

Bai, 10 nireak dira eta bestea *Lone Star* talde kataluniarraren bertsio bat. Aukeraketa egiteko orduan errezenera jo dut. Batetik, nire azken kantuak sartu ditut, adierazgarrienak. Bestetik, Kubanakhanen etapak laburtzen dituzten kantak ere badaude. Norabide bakarra ez badu ere, hainbat direkzio biltzen dituen diskoa da.

KANTAUTOREEK PROTESTA ETA SENTIN1ENDU ABESTIAK EGITEN DITUZTELA ESAN OHI DA. ZUK NOLA DEFINITUKO ZENITUZKE ZURE KANTUAK?

Sentimentuzko abestiak dira batzuk. Besteak, protesta kantuak baino, nahigabe edo atsekabe abestiak dira. Kantautoreek kantua dute oinarri eta musika tresna sinple bat erabili ohi dute laguntzeko, gehienetan kitarra. Nire burua ez daukat kantautoretzat, beste erraminta hatzuk erabiltzen baititut.

ZU ZEU GUSTURA AL ZAUDE DISKOAREKIN?

Bai, pozik nago, baina hobetu daitekeela uste dut. Hala ere neukan motibazioa eta diskoa egiteko hartu dudan lana proportzionalak izan direla iruditzen zait. Erabili ditudan medioak erabilita onartzeko moduko maila dauka.

BANAKETA HANDIRIK EZ OMEN DUZUE EGINGO.

Elgoibarren eta Ermuan nahiko erraza izango da nire diskoa aurkitzea. Ermuan diskadendetan eta hainbat tabernatan izango da salgai. Elgoibarren, berriz, Gaztetxean, taberna batzuetan eta agian diskadendaren batean. Diskoa lortzeko arazorik duenak banaketa arduradunarengana jo dezake (943 17 43 20 Aitor). Jendeari esan nahiko nioke nire diskoa inolako aurriritzirik gabe entzuteko, sentsazio berriak sor baititzake.

## INTERESEKO

**OSASUNA**

Anbulategia:
Larrialdiak . 943 461111
Txanda hartzeko . 943 743354
Planning-a ....... 943 742950
Alkonokko Anonimoak 943740385
D.YA (anbulantzia) . 943 464622
Gurutze Gorria .. 943 743864
Mendaroko Ospitalea. 943 032800
Odol Emaileak .. 943 743936

**GARRAIOAK**

Eusko Trenbideak. .. 943 740442
PESA (Eibar) 902 10 12 10
Taxi geltokia . 943 740898

**UDALA**

Euskara Zerbitzua. .. 943 744366
Udal Kirol Patronatua.. 943 744415
Kultura Zerbitzua.. 943 742158
Mendaroko Udala... 943 756100
Ongizate zerbitzua .. 943741008
Udaletxea ......... 943 741050
Udaltzaingoa.. 943 741394

**BESTELAKOAK**

Elgoibarko Izarra .. 943 741626
Kiroldegia ......... 943 744415
Kontsumo Bulegoa ... 943 743088
Liburutegia ....... 943 743525
Musika Eskola .. 943 742145
Mintxeta ......... 943 744315
Parrokia .......... 943 740842
Postetxea ......... 943 741547
Gaztetxea ......... 943 743572

**ADINEKOEN ETXEAK**

San Lazaro Egonza.. 943 740296
Zaharren Biltokia ... 943 740526

**IKASTETXEAK**

Haur Eskola . 943 74 21 41
HHI (EPA) . .. 943 74 08 80
Herri Eskola .. 943 74 08 79
I.M.H. .......... 943 74 41 32
Herri Institutua
Arreiturre 943 74 02 67
Ezenarro (Meka). . 943 74 44 80
I kastola ......... 943 74 44 41
Pilar Ikastetxea.... 943 74 13 31

**KOMUNIKABIDEAK**

BARREN......... 943 74 41 12
El Diario Vasco ... 943 74 40 73
El Correo Español. 943 74 10 82
Gara .............. 943 10 84 21
Zazpiki irratia . 943 74 34 74

## 8 ostirala

**22:15 ZINEA**
"Instinto"

## 9 larunbata

**22:30 "PERMETeko LE-LA SEND1A" MUSIKA TALDEA**
Foruen Plazan
(Euria egingo balu Herriko Antzokian)
Antolatzailea:
Haritz Euskal Dantzari Taldea
Sarrera dohainik

## 10 igandea

**16:30 ZINEA**
"Doug, su primera pelicula"

**19:00 ZINEA**
"**La** estrategia del caracol"
Gaztetxean

**19:30-22:15 ZINEA**
"Instinto"

## 11 astelehena

22:15 **ZINEA**
"Instinto"

## 12 asteartea

**11:30 MEZA PILAR IKASTETXEAN**

**12:00 SAN PEDRORA TXIRRINDULARI IGOERA**
Irteera: Plaza Handian
Antolatzailea:
Elgoibarko Lagun Taldea

## 15 ostirala

**21:00 ZINE TOPAKETAK**
"Una mujer independiente"
Antolatzailea:
Haizea E. T.
Kultur Etxean

**22:15 ZINEA**
"**Star** Wars:
La amenaza fantasma"

### FARMAZIAK

| | Egunez | Gauez |
|---|---|---|
| 9 | Bidasolo | Bidasolo |
| 10 | Bidasolo | Bidasolo |
| 11 | Etxeberria | Etxeberria (Santa Ana kalean) |
| 12 | Etxeberria | Etxeberria (Santa Ana kalean) |
| 13 | Yudego | Yudego |
| 14 | Zabaleta | Zabaleta |
| 15 | Etxeberria | Etxeberria (Santa Ana kalean) |

*(eguerdiko 2ak arte)
**ESCALA:** Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
**ANDUAGA:** Herriko enparantra 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
**ZABALETA:** Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

### OKINDEGIA

**10** igandea Doria Mercedes
12 asteartea Eizagirre

## ZINEA



Zuzendaria: Jon Turteltaub.
Antzezleak: Anthony Hopkins, Cuba Gooding, Jr, Donald Sutherland.

### "Instinto"

**Ethan Powell zientzilari arrakastatsua** da. Ruandako oihanean gorilen bizimodua aztertzen **dabilela,** animaliek taldeko kide bat gehiago bezala onar dezaten Iortu du. Isileko ehiztari maltzur batzuek, ordea, berak egindako lan guztia izorratuko dute. Ethanek, animalia bat ballitzan eireakzionatuko du, eta ehiztariak akabatuko ditu. Zibilizaziora bueltatzerakoan kartzelaratu egingo dute eta hitzegiteari utziko dio. Sikologo gazte bat Ethanen jokaera eta izaera ulertzen saiatuko da.

## • Mekanogralia ikastaroa

Elgoibarko Herri Institutuak mekanografia ikastaroa antolatu du. Ikastaroak 20 orduko iraupena izango du, eta bi zatitan banatuta egongo da. Lehenengo klaseak urriaren 25etik 29ra bitartean emango dira, eta azaroaren 8tik 12ra izango dute jarraipena. Klaseen ordutegiari dagokionez, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara Iuzatuko dira. Programa informatiko bat erabiliz irakatsiko dute mekanografia. Interesatuek 943 74 80 19 zenbakira dei dezakete.

## • Marrazketa artistiko ikastaroa

Egur Arte Tailerrak antolatuta eta Elgoibarko Udalaren dirulaguntzaz, marrazketa artistiko ikastaroa urriaren 18an hasiko da. 30 orduko ikastaroa izango da eta azaroaren 8ra arte luzatuko da. Ordutegiari dagokionez, klaseak arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara izango dira. Ikastaroan parte hartu nahi dutenek Egurrek Ubitarte Plazan duen egoitzan eman dezakete izena arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara bitartean.



## • Pilarreko amabirjinaren eguna ospatuko dute Pilar ikastetnean

Urriaren 12an Pilar Ikastetxean Amabirjinaren eguna ospatuko dute. Goizeko 11:30ean ikastetxeko patioan meza izango da. Ondoren, Itxaropena abesbatzak kontzertua eskainiko du, eguerdiko 12:30ean hain zuzen. Azkenik, eguerdiko 13:00etan Gurasoen **Batzordeak** prestatutako luntxaz gozatzeko parada izango da. Ikastetxeko guraso, ikasle ohi eta herritarroi oro har, gonbita luzatu nahi die zuzendaritzak.

## • Zine topaketak Haizeakoen eskutik

Haizea Emakume Taldeak Zine Topaketak antolatu ditu urriaren 15ean hasi eta abenduaren 3a bitartean. Ostiralero bideo-pelikula bat eskainiko dute Kultur Etxean, gaueko 21:30ean hasita. Emanaldi hauen helburu nagusiak; emakumeen erabakiak hartzeko gaitasuna indartzea eta gizartean parte hartze handiagoa bultzatzea dira, besteak beste. Pelikulak ikusi ondoren, hainbat gai eztabaidatuko dituzte bertan bildutakoek; bikoteen arteko harremanak, sexualitatea, estereotipoak, gizartean erroturik dauden aurreiritziak etab. Lehenengo pelikula "Una mujer independiente" Urriaren 15ean, ostiralean, eskainiko da.

## • Zazpiki irratiko irratsaio berriak hasi dira

Zazpiki irratiak pasa den ostiralean, hilaren lean, eman zion hasiera 1999-2000 denboraldiari. Zazpiki irratiarentzat urte berezia izango da aurtengoa, gabon inguruan, 15 urte beteko baititu. Hau dela eta, Zazpikikoek deialdi zabala egiten diete herritarrei irratian parte hartzeko, irratsaioak entzunaz edo irratsaioetan parte hartuz. Irratsaio bat egitea nahi duten guztiek, hamabostean behin ganbaran (Aita Agirre plazan) egiten dituzten bileretara agertzea baino ez dutela adierazi digute. Estilo eta eduki askotako 9 irratsaio entzuteko aukera izango da osteguna, ostirala eta larunbata bitartean, F.M. 107.6an.

**Softlan**

analisia & programazioa

## **gaurtik** etorkizunari pegira




**2000. urtearen atarian gaude. Eta oraindik ez dakizu zure ekipoek eta programek datorren urtean baliorik izango al duten? Zeren zain zaude, ba? Zure enpresak edo negozioak eskertuko dizu.**

**Deitu iezaguzu eta duda guztiak argituko dizkizugu.**

**Softlan**

analisia & programazioa

**Tel. 943 74 81 05**

**Faxa: 943 74 82 28**

**E-posta: desarrollo@softlan.com**

**Softlan** Antonio Arrillaga, 1 Elgoibar

# GREMIOEN GIDA

Gremioen gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu ! ☏ 943 74 37 04

## AROZTEGIAK

**BIENA**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
tr **943 74 31 16**

**GARCIA**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
**943 74 32 38**

**LODOSO**
Leihoak
Ermuaranbide, 16
12 **943 74 34 90**

**SORALUZE**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
z' **943 74 36 34**

**ULAZIA**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
s' **943 74 05 47**

**ZABALA**
Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
17 **943 74 03 96**

## 5© HHDr2M.1

**GLAS CONTROL S.L.**
Inpermeabilizazioak
Olaso 27, 47. pabifoia
**943 74 30 94**

## ITURGINTZA

**ANGEL**
Santa Ana, 5
.13. **943 74 17 61**
**689 04 92 06**

**JAVI**
Erretxindi, 1
n' **608 77 29 32**

**JUAN CARLOS**
Urasandi, 59-61
T² **943 74 34 87**

**ONGI**
Urasandi, 8
11' **943 74 10 82**

**PAGOAGA**
San Antolin, 13
Tr **943 74 02 79**

**TELLABIDE**
Azpilgoeta, **19 MENDARO**
z" **943 75 50 62**
'L'r 607 **75 50 62**

**ZALDUA**
Urasandi, 26
**943 74 05 30**

**ZUBIZARRETA**
Ubitarte, 5
z° **943 74 07 89**
27 **608 14 30 40**

## PE©rEERGEILUE

**JESUS M1 GABILONDO**
Ubitarte, 4-5 esk,
rt **943 74 45 99**

## PINTURAK

**IPINTZA**
Foruen enparantza, 4
Ti* **943 74 04 40**
Tr **607 74 04 40**

## 1111ZE MEI'M

**ARAMAR**
Morkaiko, 1
72 **943 74 12 80**

**AZPELETA**
San Frantzisko, 51
'w **943 74 12 38**

**BETI ARGI**
Errosario, 6
z* **943 74 16 44**

**URZELAI**
Santa Ana, 12-14
z' **943 74 13 76**

## DIELMEM

**ANTONIO MARKEZ**
Urasandi, 24
TzT **943 74 34 18**

**ASKETA**
Osio, 7 **DEBA**
Tr **629 34 43 89**

**JOSE LUIS MENDEZ**
Urasandi, 24
z' **943 74 29 87**
ze **689 58 47 23**

**IPINTZA**
Trenbide, 25
'w **630 95 97 58.7**
**Faxa: 943 74 45 97**